

EUSKADIKO FEDER PROGRAMA ERAGILEA 2014-2020

Laguntzarako Baldintzak Ezartzen dituen Agiria - LBEA

ORGANISMO BITARTEKARIA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

INBERTSIOA/KONTRATAZIOA KUDEATZEN DUEN ORGANISMOA

Berrikuntza Zerbitzua

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EKONOMI ETA LURRALDE
GARAPENA SUSTATZEKO SAILA**

ERAGIKETA:

Bizkaiko Foru Aldundiaren 179/2018 FORU DEKRETUA,
abenduaren 18koa. Honen bidez, lehiakortasu-nerako eta lankidetzan
sortutako berrikuntzarako Elkarlanean 2019 Programa arautzen
duten oinarriak eta deialdia onartzen dira.

Laguntza emateko ebazpenaren osagarri gisa, jakinarazten da laguntza onartzeak berez dakarrela baldintza hauek bete beharra:

1. Laguntza onartzearekin batera, erakunde onuradunak adierazten du administrazio- eta finantza-gaitasuna eta gaitasun operatiboa duela hura jasotzeko baldintzak betetzeko.
2. Erakunde onuradunak eragiketa mantendu beharko du Xedapen Erkideei buruzko Erregelamenduaren (XEE) 71. artikuluekin bat aplikatu behar zaizkion estatu-laguntzei buruzko arauetan ezarritako epean.
3. Gauzatze-egutegian adierazten denez, hasiera-data 2018ko urtarrilaren 1a da, eta amaiera-data, gehienez ere, 2020ko ekainaren 30a.
4. Erakunde onuradunak kontabilitate-sistema bereizia eraman behar du, edo kontabilitate-kode egoki bat esleitu behar die eragiketarekin lotutako transakzio guztiei.
5. Erakunde onuradunak informazioaren eta publizitatearen arloko xedapenak bete behar ditu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 115. artikuluan eta XII. eranskinean ezarritakoarekin bat.
6. Neurriak hartu behar ditu gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko, bai eta sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa direla-eta gerta litekeen edozein diskriminazio saihesteko ere. Halaber, bete beharrekoa izango da garapen jasangarriaren eta ingurumenaren kontserbazio, babes eta kalitatearen hobekuntzaren printzipioa, XEEren 7. eta 8. artikuluekin bat.
7. Aplikatu behar den eta onuradunak bete behar duen araudia, estatuarena zein Europar Batasunarena, hau da:
 - a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, EIF funtsei buruzko xedapen erkideak ezartzen dituen (XEE).
 - b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1304/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 17koa, Europako Gizarte Funtzari buruzkoa.
 - c) XEEren 149. eta 150. artikuluetan aurreikusitako erregelamendu eskuordetuak eta betearaztekoak.

d) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 966/2012 (EB, Euratom) Erregelamendua, 2012ko urriaren 25ekoa, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu behar zaizkion finantza-arauei buruzkoa, Kontseiluaren 1605/2002 (EB, Euratom) Erregelamendua indargabetzen duena.

e) HFP/1979/2016 Agindua, abenduaren 29koa, 2014-2020 aldirako FEDERren eragiketa-programetan diruz lagundu daitezkeen gastuei buruzkoa.

f) Kontratazio publikoaren arloko araudia

g) Ingurumenari buruzko araudia

h) Estatuko laguntzari buruzko araudia

i) Dirulaguntzei buruzko araudia

8. Erakunde onuraduna arduratu behar da auditoria-aztarna mantentzeko agiriak zaintzepean edukitzeaz eta hura agintari eskudunen esku jartzeaz (eskatzen dutenean). Agirion artean, honako hauek sartu behar dira: gastua eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak (aplikatu beharreko araudiak halakotzat onartuak), publizitatearen eta komunikazioaren arloko neurriekin lotutako dokumentuak eta informazioa, eta jarduketan errealitateari eta haien abiarazteari eta mantentzeari buruzko informazioa.

Dokumentazio hori hiru urtean eduki beharko da zaintzapean; eragiketaren gastuak sartu diren kontuak aurkeztu eta hurrengo abenduaren 31tik aurrera zenbatu behar da epe hori.

9. Eragiketaren kostuak zehazteko metodoa eta dirulaguntzaren ordainketarako baldintzak, berriz, laguntzaren deialdian ezarritakoak izango dira.

10. Orobat jakinarazten da ezen, laguntza onartzearekin batera, eragiketa eta hari buruzko datuak sartuko direla XEEren 115.2 artikuluan aurreikusitako eragiketa-zerrendan.

11. Onartutako eragiketaren kontura aitortzen diren gastuak justifikatzeko prozedura aurreikusitako ziurtagiri-ereduarekin bat egingo da, zeinari gastuaren frogagiriak erantsiko zaizkion —egiaztapen administratiboak egiteko—, eta deialdian ezarritako justifikazio-sistemeekin bat.